

HITZ BITAN

Schumacher, gero eta handiago

1 FORMULA. Gidari alemaniarra laugarrengoz txapeldun, Hungarian, Ferrari taldearekin

Idoia Viteri | **DONOSTIA**

Zalantza izpirik gabe, Michael Schumacher gizon handia da 1 Formularen historian. Herenegun, laugarrengoz Munduko txapeldun bilakatu zen Hungaroringen (Hungaria). Honezkero, kirol honetako zenbait errekor berdinu ditu alemaniarrek, eta mito bilakatzen ari da automobilismoan.

Schumacherrek eta bere Ferraririk Alain Prostek irabazitako txapelketa kopurua berdintzea lortu dute Hungariako garaipenarekin. Lau aldiz izan dira 1 Formulako Munduko txapeldun, Juan Manuel Fangio argentinarraren kurrikulum opa-

roaren atzetik; Fangio mitikoa bost bider igo baitzen podiumeko gorenera.

Alemaniarra 1994an eta 1995ean Benettonekin izan zen garaile, eta orain Ferrarirekin, 2000an eta 2001ean. Aurtun, aspaldian inork ez bezala, nagusitasun garbiarekin irabazi du Schumacherrek, eta datorren urtean Fangio ospetsuaren marka berdintzeko aukera handia duela aurreikusten da.

Schumacherren nagusitasunaren isla dira, esaterako, lehen 14 itzulietan bere aurkari nagusiari, David Coulthard britaniarrari, ateratako abantailazko bost segundoak. Gainera, beste gidariak doblatzen hasi zen segituan. Amaieran, lasterketa



GERO BRELOER / EPA

Michael Schumacher txapeldunaren poza begi bistan da irudian.

amaitu zuten erdiak doblatu zituen, eta azkena, Jos Verstappen, hirutan, gupidarik gabe.

Inoizko kirolari handienen artean, betiko gogoan

Michael Schumacher gidari alemaniarra kirol munduko handien artean dago jada, garai bat finkatzen duten inoizko kirolari bikainen artean, alegia. Kirolaren historian, Michael Jordan, Diego Armando Maradona, Mike Hailwood, Miguel Indurain, Eddy Merckx eta Pelaren alboan kokatu da, eta haiek bezala, belaunaldiz belaunaldi gogoan izango da, baita etorkizuneko 1 Formulako gidarien jarraibidea izango ere.

Alemaniarra prentsak inoizko 1 Formulako gidari bikainentzat aurkeztu du Schumacher herrikidea, eta Fangioren maila gainditzeko gai izango dela irmoki defendatzen dute. Schumacher Sennak zuen grinarekin alderatu dute, ordenagailu batek gidatutako munstro hotz bat zela esanez. Herenegun, kameren aurrean negarrez, bere sentiberatasuna azaleratu zuen txapeldun handiak.

GOLFA. Olazabalek 37. postuan amaitu zuen



STEVE SCHAEFER / FP

David Toms estatubatuarrak ezustekoa eman zuen PGA irabaziz

Nazioarteko zale gehienentzat jokalaria ezezaguna zen David Toms estatubatuarra PGA torneooko garailea izan da Atlantan. Phil Mickelson herrikidearekin izandako norgehiagokan, kolpe bategatik gailendu zen Toms, denera 265 kolpe (-15) behar izan eta gero. Torneo guztian sekulako lasaitasuna erakutsi du Tomsek, eta Mickelsonek Grand Slamik irabazten ez dakien jokalaria bikaina dela azaldu du berriro. Garaipen handi horrekin, Toms ezagun bihurtu da.

ESKUBALOIA

San Gines Torneoan, Portland San Antoniok Galdar taldearen aurka jokatu du gaur Lanzaroten

San Gines Torneoaren zazpigarren aldia hasiko da gaur Lanzaroten, ospe handiko partaidetzarekin, gainera. Izan ere, Europako txapelduna, Errege kopako txapelduna —Portland San Antonio— eta Ligako txapelduna arituko dira. 19:00etan, Ademar Leon eta Ciudad Real izango dira aurrez aurre, eta 20:30ean, etxeko talde Galdarren eta Portland San Antonioren txanda izango da. Bi partidetak irabazleak datorren asteazkenean jokatu dute finala, 20:30ean hasiko den partida.

TENISA

Serena Williams, Torontoko Torneoan nagusi

Serena Williams estatubatuarrek iazko finaleko arantzak kentzea lortu zuen herenegun, Toronton. Txapelketa Jennifer Capriati herrikidea hiru setetan menpean hartu ondoren eskuratu zuen (6-1, 6-7 eta 6-3). Garaipen horrekin, Williams Capriatiren aurka izandako emaitza txarren boladarekin amaitu zuen.

GIMNASIA

Alexandra Huci errumaniarra hil egin da

12 urteko Alexandra Huci gimnasta atzo hil zen, bost egun koma sakonean izan eta gero. Deva klubeko ki-dea, asteazkeneko entrenamenduan, gaizki sentitu eta berehala koman sartu zen. Timisoarako erietxera presaka eraman zuten, eta medikuek garuneko arazo bat diagnostikatu zioten. Errumaniako gimnasia etorkizun oparoa zuen Hucik.

OLINPISMOA

Munduko Antidoping Agentziak Lausana, Viena edo Montrealen izango du egoitza

Behin behineko Lausanan dagoen Munduko Antidoping Agentziaren egoitza non finkatuko den erabakiko da bihar, Estoniako hiriburua Tallinen. Hiru hiriburu dira hautagaiak: Viena, Montreal eta Lausana bera. Agentziak Lausanan jarraitze-ko aukera asko du, dagoeneko nahiko finkatuta baitdago bertan, eta gainera, nazioarteko kirol federazioen laguntza duelako. Bestalde, Agentziaren presidentea, Richard Pound, kanadiarra izaki, Montreal hautatua izatearen alde dago.

HITZ ETA PITZ



HICHAM EL GERROUJ

(1.500 metroko munduko txapelduna)

«Datozen urteetan atleta asko hilko dira dopajearengatik. 20 edo 30 urteren buruan jakingo da zein diren»

«Saidi-Siefek zer egin nahi zuen nandrolona hartuta? Esprintatu? Argeliaren izen ona zikintzea lortu du»

PAUL GASOL

(NBako jokalaria)

«Jordani txapel bat jartzea gustatuko litzaidake»

TITIN III.A

(Aspeko aurrelaria)

«Pilotalekuen arabera aukeratu behar dira pilotak, ez pilotarien arabera»